

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Ostirala, 2012ko azaroaren 2a. IX. urtea. 2.427. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



LURKZU

→ **Hasi da Tolosako Abesbatza Lehiaketa.** Atzo goizean hasi zen nazioarteko koruen txapelketa. Lehen emanaldia Santa Klara elizan izan zen, eta Indonesiako Maranatha Christian University (irudian) taldekoak izan ziren abesten lehenak. Gaur arratsaldean izango dira emanaldi guztiak eta Letonia, Filipinak, Erresuma Batua, Indonesia eta Frantziako taldeak entzun ahal izango dira, Leidor aretoan. **3**

## Nafarroako Gobernuak mankomunitateak murriztu nahi ditu

Leitza eta Areso hartzen dituen Mendialdea mankomunitateko kideen ustez neurria kaltegarria izango da zerbitzuei dagokienez **7**

## Ohiko larrialdien inguruko hitzaldia, Kultur eta Kirol Astea hasteko

Anoetarrek kultur eta kirol ekitaldi ugari izango dituzte azaroaren 7tik 18ra bitarte; Sahararen inguruko erakusketa bat ere jarriko dute kiroldegian **4**

## Gaixotasun arraroak dituzten haurrei laguntzeko gala, Leidorren

Sortu berri duten Gure Nahia Elkartasuna taldeak antolatu du ekimena; azaroaren 9an izango da Tolosako aretoan, 20:00etatik aurrera **5**

## Barazki, artisau eta animaliez osatutako azoka berezia, Bedaion

Igandean 10:00etan hasiko da jaia, eta postuez gain, taloak izango dira jateko; bazkaltzeko, berriz, babarrun jatea egingo dute Artubi elkartearen **6**

Elketa Jatetxea



- ♦ Eguneko menua (astelêhenetik ostiralera)
- ♦ Plater konbinatuak (ostiral, larunbat eta igande gauetan)
- ♦ Menu berezia (larunbat eta igande eguerditan)

San Miguel bailara, 2 • Hernialde •  
Erreserba egiteko: 943 65 21 16  
[www.elketa.com](http://www.elketa.com)

# Pinturaren bidez erlaxazioa islatzen du Karmele Pellejerok

Hilabete guztian egongo dira ikusgai Larraulgo herri ostatuan tolosarraren koadroak

akrilikoz egiten ditu. Bi tekniken arteko desberdintasuna pintura bera dela dio artista tolosarrak. Larraulgo herri ostatuan, guztira 20 koadro inguru ikusteko edo erosteko aukera dago.

Pintura mundua betidanik

gustatu izan zaio eta pintatzera koan erlaxatu egiten da: «Normalean irudien erretratuak egitea gustatzen zait, irudimenerako ez dut horrenbeste balio». Erakusgai dituen koadroak, haur zein helduen gozamenerako egin ditu.

**Asier Imaz** Larraul

Larraulgo herri ostatuan Karmele Pellejeroren erakusketa jarri dute. Hernialden bizi den tolosarraren pinturak hilabete guztian zehar egongo dira ikusgai. Aurrez, Alegia, Hernialde, Tolosa eta Legorretan egon dira Pellejeroren lanak, eta jasotako erantzunarekin oso gustura gelditu da tolosarra: «Zortzi koadro saldu ditut, beraz, Larraulerako lan berriak egin behar izan ditut. Hala eta guztiz ere, azken aldian, lanpetuegi nabil koadro gehiago pintatzen jarraitzeko».

Karmele Pellejeroren lanak klasikoak direla dio: loreak, Hernialdeko eliza, elurretako panpina... Hauek oleoz marraztu ditu. Haurrentzako koadroak ere pintatzen ditu Pellejerok, eta hauek,



Herriko haurrak izan ziren erakusketa ikusten lehenak; bigarren irudian, eguzki loreen koadroa ikusi daiteke. A. IMAZ

## Irudia o Tolosa



## HODEI TRUK DURANGON

Hodei Truk abesbatza Durangoko Txistu Kontzertuko gonbidatua izan zen, pasa den larunbatean. 80 txistulari baino gehiago, metalezko bostkotea eta bakarlariak lagundu zituen abesbatzak. Kontzertuaren helburua, txisturako erreperitorio berria, eta emanaldi honetarako bereziki idatzitako moldaketak ezagutaraztea izan zen. David Azurzak, *Haika Mutilen* moldaketa eta Michael Jacksonen *Thriller* doinuarena aurkeztu zituen emanaldian. VOEMY FACTORY

# Txapela janzteko dotorezia sarituko du, beste behin, Txinparta elkarteak

Hamalagarrenez antolatuko dute 'Txapela nork hobeto jantzi' lehiaketa, azaroaren 17an

Erremeritari kalean duen egoitzan. Izena emateko, 699 169 243 telefonora dei egin daiteke, eta egun berean ere aukera izango da.

Gizon eta emakumeentzako diru-sariak izango dira lehen hiru sailkatuentzat; 60. 40 eta 30 euro

banatuko dizkiete, hurrenez hurren.

Horiez gain, ordea, parte-hartzaile helduenari, gazteenari, eta Txinparta elkarteak kideen artean txapela dotoreziaz janzten duenari ere saria banatuko diete. [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

**I. Urkizu** Tolosa

Txapela janztea arte bilakatzen dute egun batez, Tolosako Txinparta elkarteak kideek, eta aurrez, Tolosako Babarrun astearen barruan, XIV. Txapela Nork Hobeto Jantzi Nazioarteko Txapelketa antolatuko dute.

Azaroaren 17an, 12:00etan hasiko da lehia, Txinparta elkarteak



Hamalagarrenez antolatuko dute txapelketa. R. CALVO

# Babarrunekin egindako mokadutxoak banatuko dute, bihar, Zerkausion

Berrobiko Iriarte jatetxeko sukaldaria ariko da KM 0 egitasmoko saio honetan

Horrela, bihar, azaroak 3, Berrobiko Iriarte jatetxeko Felix Belaunzarri ariko da Tolosako azokak + KM 0 egitasmoari jarraipena emanez: «Bertako produktua, bertako ekoizleak eta bertako sukaldariak, denek bat eginik, babarrunak produktu nagusitzat hartu, eta mokadu goxoa prestatuko du», azaldu dute antolatzaileek. Babarrun krema izango da dastagai, beraz, azarekin eta Ibarako piparrekin batera.

**I. Urkizu** Tolosa

KM 0 egitasmoak ohikoa duen moduan, puri-purian dauden saioko produktuak erabiliko dituzte, bihar, Zerkausion prestatzeko. Babarruna oinarri hartuta egingo dute, beraz, bertaratzen diren herritarren artean.

Modu honetara, beraz, goizean Zerkausiko postuetan barrena ibiliko da sukaldaria, eta jakia prestatzeko beharrezkoak dituen produktuak erosi ondoren, Zerkausion bertan ariko da sukalde lanetan.

Azkenik, 12:00ak aldean prestatutako mokadua banatzeari ekingo diote.

**IRAGARKIA**

2012ko urtarrilaren 31ean izendako Osoa Bikarria, gihongo abokatu laguntza aldiak bitartean 2013. urtikoa urterikoa izango duen Osoa Bikarria Fisikak eta erakundeak aldiak erabaki zituen.

Hartutako akordioak Urdetxezko iragarki taldearen ageri diren 30 egun bitartean erabaki, iragarki hau G.A.D. ageri eta hurrengo egun bitartean erabaki.

Epe honetan, 11/1989 Arria Fisikak 17. artikuluan agertzen diren inbentarioak erabakia erabaki aldi irango dute eta egokiaz jai dituzten erakundeak erabaki. Inbentario hau ezarriko da eta ondoren, eta erabakia erabaki edo aldatu ez bada, hartutako erabakia betin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik izango.

Tolosa, 2012ko urtarrilaren 31an  
ALKATEA

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ **Iragarki laburrak**

**LANESKAERAK**

**Harakina.** Harategietan, bilgetik ekartzen duten ganadua zaitzeko, harakinak bere burua eskaintzen du. Interesa duen edonork dei dezala 635 74 15 64 telefono zenbakira.

Eserleku beteekin eta ilara luzeekin hasi da, aurten ere, Tolosako Abesbatza Lehiaketa. Aurreko urteetan baino talde gutxiago izango diren arren, oholtza gaineko ahotsak kalitatearen doinuak dituzte.

# Ahotsak nahastearen dotorezia

## Itzea Urkizu

**H**asi da, beste urte betez, nazioarteko abesbatza musikaren hitzordurik garrantzitsuenetakoa: Tolosako Abesbatza Lehiaketa. Ehunka ahotsak milaka kilometro egin dituzte, Gipuzkoa erdialdeko oholtzetan beren doinurik gozoenak eskaintzeko.

Krisi egoerak kantuari ere eragin dio, eta aurten hamabi abesbatza bakarrik ariko dira saririk garrantzitsuenak eskuratzen lehiatzen; haurren abesbatzek hutsune nabarmena utzi diete, bai antolatzaileei, baita ikuslegoari berari ere. Honek, hala ere, ez du bertaratutako ikus-entzuleen beharriak gozatzea oztopatu, eta 2012ko abesbatza lehiaketan ere kalitate handiko ahots taldeen emanaldiak izango dira entzungai.

Atzo, 11:30ean hasi zen lehiaketa, Santa Klara elizan, musika sakratuko saileko emanaldiekin. Abesbatza musikaren zaleek harreko ezinhobea egin zioten saioari; hala erakutsi zuen, konbentuaren kanpoaldean kontzertua hasi baino ordu laurden lehenago osatu zen ilara luzeak. Santa Klara elizako eserlekuak bete egin ziren, beste urte betez.

Abesbatza musikan adituonek, eszenatoki kuttuna dute Santa Klarakoa, akustika egokia duela eta. Benetan probestu zuten soinuaren egkitasun hori, Maranatha Christian University abesbatza indonesiarra, eta baita Apollo 5 britainiarra ere.

Lau obra eskaini zituzten lehenengoek, diziplina handiaren zantzuan nabarmen utziz: *Gloria in excelsis deo*, *Abendlied*, *Vade Retro Satanas* eta *Onata lux*. Kritikak Indonesiako abesbatza onenen artean du, eta azken urteotan parte hartu duten lehiaketetan lehenengo postuak eskuratu izan dituzte gizon-emakume hauek.

Erresuma Batuko Apollo 5 boskoteak, berriz, zazpi abesti interpretatu zituen, kideen arteko elkar ulertze handiaz: *Alleluia I heard a voice*, *If ye love me*, *The Call*, *Balm in Gilead*, *Come Sunday*, *God be in my head* eta *My soul there is a country*. Voces Cantabiles Music proiektuaren barruko taldea da, eta abeslari profesionalak dira bostak.

Atsedendiaren ostean, beste bi abesbatzek hartu zuten Santa Klara elizako aldea. Filipinetako University of the Visayas Choral abesbatza izan zen lehenik,

eta Letoniako emakumeen ahots taldea aritu zen emanaldiari amaiera emanez: Latvian Voices.

**Ahots europarren nahasketa** Polifonia saileko emanaldiak estreinatzen zuten Leidor aretoko oholtza, arratsaldean.

Bost abesbatzaren saioak entzutekoak ziren berez, baina bitalderi ezinezko suertatu zaie Tolosara bertaratzea; Venezuelako

behartuaz gain, *Jesus es a kufarate Caeli* eskaini zituzten. Zazpi urteko ibilbidea duen abesbatza honek, nazioarteko beste hainbat lehiaketetan ere kritikarik onenetakoak jaso ditu.

Urakinako Credo abesbatzak, berriz, hasiera-hasieratik erakutsi zuen, *El que se hace de sus Angeles* obrarekin, kanturako duten kalitatea. Musikako aditu eta kri-

tikoen iritzi eta laudiorik onenak jaso dituen abesbatza da ukrainarra, hainbat abesbatza lehiaketetan irabazte suertatu izan direlarik.

Publikoaren txalorik beroenak jaso zituen Kiev-eko (Ukraina) taldeak, ahotsen arteko nahasketaren ezinhobeaz osatutako erreperitorioarekin: *Pater Noster*, *Aleph Ego Vir* eta *Que nuestros labios de llenen*.

Tolosara bidaiatu ezin izan zuten abesbatzen hutsunea Voces Cantabiles abesbatzak bete zuen, emanaldiko bigarren zatian kontzertua eskainiz; ikus-entzuleen gozamen nabarmena izan zen.

Lehiaketako saioek, ordea, gaur jarraituko dute, 16:00etan musika profanoaren saileko emanaldia izango baita Leidorren. Polifonia eta folklorea, berriz, 19:30ean izango dira.

**Arratsaldeko txalo zaparradarik beroena Ukrainako Creso abesbatzak jaso zuen**

**Santa Klara elizako eserlekuak bete egin ziren beste urte betez, abesbatzak ikusteko**

Antiphona abesbatza eta Esloveniako Saleski Akademski Psvki Zbor Velenje abesbatza.

Horrela beraz, Europako aho-tsez osaturiko bi talde soilik igo ziren eszenatokira. Irlandako New Dublin Voices abesbatza sarritua izan zen lehena, eta Lorenzo Ondarraren *Pater Noster* obra



Apollo 5 britainiarrak musika sakratuan aritu ziren goizean. I. URKIZU



Polifonia sailean abestu zuten Credo abesbatzako ukrainarren publikoaren harrera ona izan zuten Leidorreko saioan. I. URKIZU



# Kirol eta kultura ekitaldiak bat eginik, Anoetan

Datorren asteazkenean hasiko da Kultur eta Kirol Astea, eta azaroaren 18ra arte luzatuko da

**Rebeka Calvo** Anoeta

Anoetan kirola eta kultura batzea erabaki dute, eta datorren astetik aurrera Kultur eta Kirol Astea izango dute. Ekitaldi ugari an-

tolatu dituzte, tartean, asteak irauten duen bitartean kiroldegiko sarreran ikusi ahal izango den Sahararen inguruko erakusketa. Euskal Fondoari esker jarriko dute *Hodeien seme-alabak*, giza eskubideen egoera Mendebaldeko Saharan erakusketa. Asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era ikusi ahal izango da, eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

Bestalde, Kultur eta Kirol Astea bukatzeko umeentzat Kili-

klon jaialdia egingo dute frontoian, azaroaren 17an, eta hainbat jarduera izango dira: antzerki ikuskizunak, ipuin kontalariak, pailazoak, gaztelu puzgarriak, tailerrak, euskaraokea, haurrentzako herri kirolak, txokolate jatea...

Igandean ere jarriko dute jolas parkea, eta egun osoko sarrerak 10 euro balio du, egun erdikoak 6 euro, eta bi egunetan joan nahi duenak 18 euro ordaindu beharko ditu.



laz ere herri krosa egin zuten Kultur eta Kirol Astearen barruan. HITZA

## ↓ Egitaraua

### AZAROAK 7, ASTEAZKENA

■ **18:30.** *Ohiko larrialdiak eta hauekiko jarrera* hitzaldia DYA-ren eskutik, udal areto nagusian.

### AZAROAK 8, OSTEGUNA

■ **19:30.** Elikadura burujabetzeri buruzko hitzaldia EBEL elkarte-ko Begoña Aristi eta Mainer Aramendiren eskutik, udal areto nagusian.

### AZAROAK 9, OSTIRALA

■ **22:00.** *Neskerazantzez* lana,

Pailaztana Clown Taldearen eskutik, Mikelasagasti auditorioan, 3 euroren truke.

### AZAROAK 10, LARUNBATA

■ **10:30-12:30.** Iparraldeko martxen ikastaroa kiroldegian, doan (makilen laguntzarekin ibiltzearen onuraz hitz egingo dute).

### AZAROAK 12, ASTELEHENA

■ **19:00.** *Gipuzkoaren jatorria* DVDaren emanaldia eta hitzaldia Nabarraldeko Angel Rekalderen eskutik, Mikelasagasti auditorioan.

### AZAROAK 13, ASTEARTEA

■ **18:00.** Osteoporosiari buruzko hitzaldia, udal areto nagusian.

### AZAROAK 14, ASTEAZKENA

■ **18:00.** Mus, domino eta tute txapelketak, erretirodunen egoitzan.

### AZAROAK 15, OSTEGUNA

■ **18:00.** Seikoak, puntua, eta txintxon txapelketak, erretirodunen egoitzan.

■ **19:00.** Loatzko musika eskola-ko ikasleen kontzertua, Mikelasagastin.

### AZAROAK 16, OSTIRALA

■ **18:00.** Ipuin kontaketa euskaraz eta arabieraz: *Nasrudin eta bere astoa*, udal areto nagusian, LH1 eta LH5 urte arteko haurrentzat, Baraka taldearen eskutik.

■ **21:30.** Euskal Jaiaren bideoaren emanaldia, eta ondoren, *Sua* filma. Egileek aurkeztuko dute lana eta sarrera borondatezkoa izango da. Jasotzen duten dirua egileei emango

diete, izandako gastuei aurre egiteko.

### AZAROAK 17, LARUNBATA

■ **Egun guztian.** Kiliklon jolas parkea, frontoian.  
 ■ **11:30.** Herri krosa, plazatik.  
 ■ **14:00.** Bertso bazkaria, Kuku elkartearen, Amaia Agirre eta Iban Urdangarin bertsolariekin.  
 ■ **19:30.** Gaztain jatea, plazan, Gazte Asanbladaren eskutik.

### AZAROAK 18, IGANDEA

■ **Egun guztian.** Kiliklon jolas parkea, frontoian.

# Zahartzoari buruzko jardunaldia osasun arloko profesionalentzat

Asuncion klinikak antolatu du azaroaren 22rako, eta hitzaldiez gain, eztabaidak egingo dituzte

**Rebeka Calvo** Tolosa

Asuncion klinikak iazera zientifikoa duen jardunaldia antolatu du hilaren 22rako. Kronikotasuna eta zahartzea izango dute hizketagai gonbidatu dituzten osasun arloko aditu eta kudeatzaileek,

eta gaixo dauden adineko pertsonen, gaixotasun kronikoak dituztenak eta ez dituztenak, laguntzeko dauden estrategiei buruz hitz egingo dute.

*Kronikotasuna eta zahartzeari buruzko ikerketa* jardunaldia Tolosako Topic zentroan izango da eta Asuncionez antolatu du Kronikogune eta Mondragon Health erakundearen laguntzarekin. Parte hartzea osasun arloko profesionalentzat dago eta izena doakoa da. [www.clinicadelaasuncion.com](http://www.clinicadelaasuncion.com) helbidean eman daiteke izena.

Hauek dira jardunaldian parte hartuko duten adituetako batzuk: Esteban de Manuel Keenoy Kronikoguneko zuzendaria, Mikel Alvarez Yeregi Mondragon Health-ko zuzendaria, eta Agustin Agirre Asuncion klinikako medikuntza zuzendaria. Aipatu behar da, era berean, azken honek, Agirre, alegia, eta Gipuzkoako Osakidetzako Ana Bustinduy Bascaranek Tolosaldean oinarrizko koordinazio espezializatuan izandako esperientziaren inguruan hitz egingo dutela 10:30ean izango den mahai inguruan.

## ↓ Egitaraua

### AZAROAK 22, OSTEGUNA

■ **09:30.** Aurkezpena, Jesus Gomez Montoyaren, Inviza SA enpresako lehendakari exekutiboaren, eskutik.

■ **09:45.** Hitzaldia: *Osasun arloko prozesu, zerbitzu eta emaitzei buruzko ikerketa*, Esteban de Manuel Keenoy Kronikoguneko zuzendariaren eskutik.

■ **10:30.** Mahai ingurua: kronikotasuna kudeatzeko beharrezkoak diren osasun zerbitzuei buruzko ikerketa arloan izandako hiru esperientzien aurkezpena. Moderatzailea Asuncion klinikako Rafael Cerdan Arandia izango da, eta parte hartzaileak

hauek: Andaluziako Virgen del Rocio ospitaleko Maria Dolores Nieto Martin, Osakidetzako Jose Artetxe Ocasar eta Ana Bustinduy Bazcaran, eta Asuncion Agustin Agirre Aranburu. Bustiduy eta Agirrek Tolosaldean oinarrizko koordinazio espezializatuan izandako esperientziei hitz egingo dute.

■ **12:00.** Etenaldia.  
 ■ **12:30.** Hitzaldia Mondragon Health Esperientziako zuzendariaren, Mikel Alvarez Yeregi- ren, eskutik. Ondoren, eztabaida Esteban de Manuel Keenoy eta Mikel Alvarez Yeregi- ren.  
 ■ **13:30.** Jardunaldien amaiera.



## Laser Promozioak:

Azaroaren 5etik 19ra

5 sesioko bonuak:

Axilak **195€**

Ingleak **300€**

Gizonentzako bizkarra **880€**

**SHUYANA**  
ESTERILIZAZIOA

ESTETIKA: Eskolapiobetako  
Lorategiak 3,1A. T. 943 675 489  
KOSMETIKA:  
Korreo 1. T. 943 671 468

Kurrinka egitea, mingaina etengabe ateratzea eta inguruko hitzak errepikatzea izan daitezke Touretten sindromearen ezaugarriak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gaixoei eta haien senideek elkarre bat sortu dute.

# Keinu kontrolaezinen eritasuna

A. A. G. (Berria) - R. C. Tolosa

**H**ogeita zortzi urterekin jakin zuen Guillermo Cannasek haurra zenetik kontrolik gabe errepikatzen zituen mugimenduen eta soinuen jatorria: Touretten sindromea zuen. Ez zion mediku batek diagnostikatu, egunkarian irakurrita jakin zuen: «Gaixotasunari buruzko artikulu bat irakurtzean jabetu nintzen bat zetorrela nik nuenarekin. Artean, urteak zera-maten medikuek zer nuen asmatu ezinda». Tourette Euskadi elkartearen kideetako bat da Cannas, eta presidentea, Eli Agirretxe, tolosarra da. «Sindrome hau ezagutaraztea eta gaixoei nahiz senideei elkarri babesa ematea dugu helburu», azaldu du Agirretxek. Haren semeak, Oierrek, 6 urte ditu, eta 5 zituela diagnostikatu zioten gaixotasuna. «Funtsezkoa da laguntza psikologikoa gaixotasunarekin, hau da keinuekin bizitzeko jakiteko».

Eritasun arraroen zerrendan dago Touretten sindromea. Mila herritarretik, bost eta 30 artean dira gaitza dutenak. Lau gaixotik hiru gizonak dira. Sindromearen sintomarik larriena koprokalia edo hitz zatarrak esatea da.

Gaixoei eta euren senideei barkadea sentitzen dutela eta informazio falta dagoela diote. «Pediatriako neurologoei formakuntza gehiago izateko aukera eman beharko litzateke. Izan ere, halako kasu bat esku artera iristen zainean, interesa dute gehiago ikertzeko eta gaixotasuna hobeto ezagutzeko. Baina ez diete ematen horretarako baliabiderik. Pena ematen du horrek», dio Agirretxek.

Haurra keinuak egiten hasi eta gutxira konturatu zen Agirretxe



Tourette Euskadi kideak, erdian Eli Agirretxe. JON URBE-ARGAZKI PRESS

tik eta mugimendu haiek ez zirela ohikoak. «Arrazoirik gabe egiten zituen», azaldu du. Bideoan grabatu, eta pediatriari erakutsi zizkion. Orduan hasi ziren probak egiten, gaixotasuna zuela diagnostikatu zioten arte. «Zorionez, garaiz diagnostikatu diote», esan du, eta horren garrantzia nabarmendu du. «Psikologikoki, funtsezkoa da diagnostiko goiztiarra. Izan ere, zer duen jakinda, ez diozu esaten keinu horiek ez

egiteko. Hori esateak ezinegon handia eragiten dio gaixoari, ezin baitu kontrolatu. Oso gogorra egiten zaie jendea begira ari zaie-lakitea ere. Zenbat eta lehenago esku hartu, hobeto», nabarmendu du.

Garaiz diagnostikatu, gainera, eskolan ere badakite zer duen, eta horrela, heziketa egokitu ahal izaten dute.

Agirretxe eta elkartearen kideek diotenez, gizarteak ez du gaixotasuna ezagutzen eta horrek egoera deseroso asko sortzen ditu, horregatik jarri dute helburuen artean gaixotasunari buruzko informazioa ematea. Hala azaldu du Agirretxek: «Gaixotasun honekin bizi daiteke, eta ezinbestekoa da jendeak ezagutzea, ikusgarri egitea».

@ Tourette Euskadi elkartearekin harremanetan jartzeko:

afetta@gmail.com  
Facebook/TouretteEuskadi

## Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko gala

Azaroaren 9an izango da, 20:00etan hasita, eta hainbat musikari eta gonbidatu bereziki parte hartuko dute

### Itzea Urkizu

Gaixotasun arraroak dituzten haurren alde, Gipuzkoako mailako lehen gala ospatuko dute, datorren azaroaren 9an, Leidor aretoan. Gure Nahia Elkartasuna taldeak antolatuta du egitasmoa, eta Gipuzkoako musika taldeek nahiz bestelako eragileek parte hartuko dute.

Elkarte berria da Gure Nahia Elkartasuna. Duela hilabete batzuk hasi ziren lehen urratsak ematen, «Gipuzkoan, ohikoak ez diren gaixotasunak dituzten haur eta gaztetxoei babesa emango dien erakunde bat osatzeko helburuz», azaldu dute taldeko kideek. Izan ere, testuinguru eta kasu jakin batzuetatik ateraz gero, erakundearen babes falta somatzen dutela nabarmendu dute, Gure Nahia Elkartasuna taldeko kideek, eta horri erantzun bat emateko bidea zabaltzen ari dira.

Talde sortu berria ezagutarazi eta laguntza biltzeko helburuz antolatuta dute, honenbestez, datorren azaroaren 9an Leidor aretoan izango den gala.

20:00etan hasita, Oreka TX,

Xabi San Sebastian, Iñigo Mugu-ruzaren Lurra proiektua, Mikel Moreno, Adarrots, Ibon Koteron eta Gontzal Mendibil musikariak ariko dira oholta gainean. Musika gain, ordez, gonbidatu bereziki parte hartuko dute gaixotasun arraroak dituzten haurren alde, eta Irrien Lagunak, Errealeko kideak, Gipuzkoako Basketeko jokalariek, Victoria Eugenia eta Gure Señeak elkarteak ordezkariek ere bertaratuko dira.

Sarrerak 10 euroko prezioa izango du, eta bildutako dirarekin elkartearen zabalkundea hobetzeaz gain, Nahia de Cos-en gaixotasuna, Txinako Wu klinikako sistema berritzaile batekin ikertzeko bidea ere erraztea dute helburu.

### Gurasoetatik gizartera

Elkartearen oinarri eta abiapuntua, Nahia de Cos haur donostiarra da. Batten-en gaitza du berak, eta bere gurasoak boluntario eta profesional taldea osatzeko lanean ari dira: «Taldearen filosofia, ordea, haratago doa, eta Gipuzkoako herritarren behar aktiboari garrantzia eman nahi diogu». Ez dute beren lana profesional eta espezialistena bakarrik mugatu nahi, beraz.

Honen harira, gizarte osoarekin elkarlanean aritzea oso garrantzitsutzat dute elkartearen kideek, «eta horretarako komunikazio sistemarik eraginkorrenak erabiltzea beharrezkoa da».



Oreka TX taldeak joko du galan, beste talde batzuekin batera. HITZA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Hitzaren harpidedunentzat

**30 €**

Udazken honetan jantzi HITZArekin!

- Kirola egiteko aproposa den txalekoa
- Barrukaldean fibra mikropolarra
- Paseatzeko aproposa

Egin eskaria:

Telefonoz: 943 65 56 95

edo gerturatu HITZAren Tolosako egoitzara: Araba etorbidea 5, behe



**Irudia** ◊ Areso / Tolosa

## ONDOAN EZ DAUDENAK GOGOAN IZATEKO EGUNA

Askorentzat azaroko lehen egunak jai eguna esan nahi du. Baina oraindik beste askorentzat elizara joan eta hilerrira bisita egiteko eguna izan ohi da. Domu Santu eguna izan zen atzokoa, eta horretarako eguna izaki, inoiz baino jende gehiagok hartzen du hilerrirako bidea.

Lorez bete ohi dira hilerrian familia dutenen txokoak, eta inoiz baino dotoreagoa janzten dira hilerririk azaroren lehen egunean. Aurreko egunetatik hasita nabaria izan ohi da jendearen joan-etorria. Atzo, goizean goizetik, Tolosaldeko eta Leitzaldeko hilerrietan jen-

de asko ibili zen dagoeneko alboan ez dauden senitar-tekoak oroituz. Atzokoa, goiz partean eguraldia lagun izan zuten familia artean loreak eramateko, nahiz eta, arratsalderako eguraldiak ere eguna bera gehiago tris-tatu zuen. E. MAIZ

## Bertako produktuekin osatutako azoka berezia izango da, Bedaion

Igandean 10:00etan emango diote hasiera azokari, eta postu ezberdinez gain taloak ere izango dira

**Enertiz Maiz** Bedaio

Urte sasoi honetan, udazkenean sartuta, Bedaioko auzotarrek azoka berezia egiten dute, eta aurrean ere ez dute hutsik egingo. Igandean, hilaren 4ean, izango da. Goiz ederra pasatzeko moduko azoka antolatuta dute, eta 10:00etan emango diote hasiera jaiari, eta 14:00ak aldera bukatutzat emango dute. Nola ez, garaian garaiko produktuak erosteko aukera izango da, taloez gain bazkaltzeko babarrunak ere izango dira.

10:00etatik aurrera, bertako babarruna, barazkiak, etxeko labe zaharrean egindako ogia, mondejoak, arrautzak, garai honetan fruta arbolak eskaintzen dituzten intxaurrak, sagarrak, gaztainak, ... ikusi, dastatu eta erosi ahal izango dira.

Etxean egindako postre gozoak ere ez dira faltako, eta gaztak ere protagonismo handia izango du azoka egunean. Karlos Beloki gaztagile bedaioarra bertan izango da, eta Zaldibiako Ardiiki egunean bigarren postua lortu berri du. Beraz, baserriko gazta eroste-



Aurten ere taloak jateko aukera eskainiko dute. HITZA

ko aukera ere izango da. Antolatzaileren esanetan: «Krisi garai hauetan hutsik egingo ez duguna, bertako eta garaiko produktuen kalitatea izango da». Eta denak Bedaioa gonbidatu nahi izan dituzte, azoka egun bereziaz gozatzera.

Baserriko animaliak ikusteko aukera izango da, sagar mota desberdinen erakustaldi bat egingo da, sagardotarako sagar motak desberdinak erakutsiko direlarik, eskulanak ere ez dute hutsik egingo, eta artisau eta jostunen arte lanak ikusi ahal izango dira.

Azokak berarekin ekartzen du jateko aukera, eta Bedaion ere tripa betetzeko aukera izango da. Hotzari aurre egiteko, txorixoare-

kin edo hirugiharrekin betetako taloak jateko aukera izango da.

### Babarrunak, bazkaltzeko

Bazkaltzeko ere hainbat aukera izango dira. Horietako bat, 20 euroren truke izango da. Artubi elkartean bertako babarruna prestatuko dute. Eta bertan bazkaltzen geratzeko aukera paregabea eskainiko dute. Egunean bertan, nahi duenarentzako bazkarirako txartelak eskuragarri jarriko dituzte, pilotalekuan.

Baina «babarrunak gustuko ez dituenarentzat Abaetxe jatetxean izango da beste hainbat jaki gorputza asetzeko eta gozatzeko», gaineratu dute.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Lau film ikusteko aukera, eskualdean

**E. Maiz** Leitza / Tolosa / Villabona

Eguraldi txarra bezalakorik ez dago zine aretora joan, eta film eder bat ikusteko. Leitzaan, Tolosan edota Villabonan zine eskaintza dago, astebururako.

Leitzako zinemaren, gaur 22:30ean eta etzi 19:30ean, Valérie Donzelli zuzendariaren *Declaración de Guerra* filma eskainiko dute. Sarrera 6 euro ordaindu be-

harko da. Tolosan, *Lo imposible* filma izango da igandean, 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ikuslearen egunean, berriz emango dute, 20:30ean.

Villabonako Gurea aretoan, berriz, igandean, 17:00etan, haurrentzako den *Brave* filma izango da ikusgai. Helduek, 19:30ean, *Barrura Begiratzeko Leioak* izango dute, eta astelehenean bigarren aukera izango da, 21:00etan.

## → Laburrak

### Etxeko osasunaren inguruko hitzaldia

**ALEGIA** ◊ Udazken Kulturalen barruan, hilaren 6an, asteartean, *Nola dakit nire etxea osasuntsua dela?* hitzaldia eskainiko du Koldo Nuñezek. Geologian doktorea, geobiologia eta psikoterapeuta da. Hitzaldia, 19:30ean, kultur etxean izango da.

### Presoen familientzako diru laguntzen epea zabalik

**TOLOSA** ◊ Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoen beren familiakoei egiten dizkieten bisitek sortzen dituzten gastuei aurre egiteko, diru laguntza eskaerak aurkezteko epea ireki du Tolosako Udalak. Azaroaren 16an bukatuko da.

### Ez ohiko osoko bilkura egingo dute asteartean

**AMEZKETA** ◊ Amezketako udal-letxean ez ohiko osoko bilkura egingo dute, asteartean. Aurreko bilkuretako aktak onartzeaz gain, 2013. urtean aplikagarri izango diren ordenantza fiskalak onartuko dituzte. Bestetik, 2012. ekitaldi ekonomikoari dagokion 2/2012. zenbakidun kreditu aldaketaren espediente eta PAESA, Energiaren inguruko plana onartuko dituzte. 20:30ean izango da.

### Babarrun lehiaketan parte hartzeko aukera zabalik

**TOLOSA** ◊ Gure kaiola elkartearen babarrun lehiaketa hilaren 18an izango da. Parte hartu nahi dutenek, hilaren 9a baino lehen eman beharko dute izena, [aiglesiasi@hirukide.org](mailto:aiglesiasi@hirukide.org) helbidera idatzita edota egoitzara bertara joanda.

## Joanes Gibelalderen dokumentala izango da gaur ikusgai, eskolan

Kultur astearren barruan, bihar sineskeriaren inguruko hitzaldia izango da, eta etzi, XIV. azoka berezia

**I. Terradillos** Berastegi

Berastegiko kultur astearren barruan, *Hegoaldera bizikletaz* ikusentzunezkoa izango da gaur ikusgai, 21:00etan, Joanes Gibelalderen eskutik, eskolako ganbaran. Bestalde, bihar, *Zorion handiegia* (Alice Munro) Nagore Tolosaren azken itzulpen lana aurkeztuko dute, 18:30ean, eskolako ganbaran. Jarraian, *Sineskeria, magia eta sorginkeria Euskal Herrian, historian zehar* hitzaldia emango du Olatz Etxeberriak.

Kultur astearren ekitaldi nagusia etzi, igandean izango da: azoka berezia. XIV. azoka eguna da aurtengoa, eta ohi bezala, goizean zehar postu ugari izango dira jakiak eta askotariko produktuekin. Era berean, lehiaketa ugari ere hartuko ditu azoka egunak, hala nola, XXI. Gazta Lehiaketa, XIV. Postu Lehiaketa, V. Ardi, Ahari eta Bildots Lehiaketa, VI. Animalia Erakusketa, eta IV. Arroz Esne Lehiaketa. Guztietan berastegiarek hartuko dute parte.

Hauen guztien sari banaketa, eta X. Argazki Lehiaketa, eta III. Baratze Lehiaketakoa ere, 13:30ean egingo dute. Halaber, aparkaleku azpiko lokalean ikusgai izango da, egun osoan zehar, Argazki Lehiaketan parte hartu duten argazkien erakusketa.

Arratsaldean ere jarraituko du jai giroak, izan ere, 18:00etan talo jatea egingo dute, eta goizeko lehiaketan parte hartuko duten gazta eta arroz esneen dastaketa ere egingo dute, ardoa eta sagardoaren laguntzarekin.

• [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

# Gobernuak seira mugatu nahi ditu Nafarroako mankomunitateak

Oier Eizmendi ados dago tokiko mapa aldatzearekin, baina UPNren proposamena «kaltegarria» dela dio

**Iñigo Terradillos** Leitza

Nafarroako Gobernuak (UPN) egungo Nafarroako tokiko mapa aldatzeko helburua du, eta horretarako lurralde osoko mankomunitateak seira mugatzea proposatu du. Hainbat mankomunitate ez daude ados proposamen honekin, Leitza eta Areso hartzen dituen Mendialdea mankomunitatea, kasu. Bertako lehendakari eta Leitza alkate den Oier Eizmendiren (Bildu) arabera, «maparen banaketa horrekin gastua murriztea lortuko dutela diote, baina, gure ustez, zerbitzuei dagokienez kaltegarria izango da herritarrentzat».

Mendialdea mankomunitateko lehendakariak dioenez, tokiko mapa aldatzearen eta egungo egoerara egokitzearren alde daude, «oso banaketa kaotikoa eta nahasmen handikoa» baitute. Hala adibide bezala, lehendakari den mankomunitatea jartzen du: «Mendialdea mankomunitateak (Goizueta, Arano, Leitza, Areso Lekunberri eta Larraun) hondakinak kudeatzen ditu; euskara mankomunitatean, berriz, Ultzamatik hasi eta Aranoraino bitarteko herriak gaude: Ultzama, Odieta, Basaburua, Lekunberri, Larraun, Araitz, Betelu, Leitza, Goizueta, Areso eta Arano; ongizatea kudeatzeko Arano, Goizueta, Leitza eta Areso elkartzan dira; eta musika eskolan euskara mankomunitateko herri guztiak gaude, Areso, Arano eta Odieta izan ezik».

**Errealitateak aztertu**

Herriak mankomunitateak sortuz elkartzan dira, zerbitzuak emateko. «Sortzen joan ziren ga-



Mendialdea mankomunitatearen barruan dago Leitza. A. IMAZ

raian, baina, nahasmen handia egon zen; mankomunitateak sortuz joan ziren zerbitzuak emateko helburuz, eta zerbitzuaren arabera, mankomunitatearen barruko herrien zerrendak handituz joan ziren, pixkana guztia nahastera iritsi den arte», dio Oier Eizmendik.

Nafarroako errealitate desberdinak ikusi eta aztertu behar direla uste du Mendialdea mankomunitateko lehendakariak: «Ezin da Iruñeko bulego batean horrelako proiektu bat planteatu, eskualde-erata etorri behar da, egungo egoera aztertu, bertako jendearrekin hitz egin eta parte hartze prozesu bat aurrera eraman; hala, sortzen diren errealitate berdinaren arabera osatu beharko liriteke mankomunitateak».

Nafarroako Gobernuak sei mankomunitate sortzea proposatu du, eta hori «erokeria» dela uste du Eizmendik. «Geroz eta handiagoa den egitura sortu nahi du, herritarrengandik urrutia egongo dena, eta erabakiak har-

tzen dituztenengana iristea zaila go dena. Izan ere, ez da gauza bera Leitza udaltxera joatea edo Nafarroako Gobernura».

**Botereen banaketa**

Nafarroako Gobernuak dioenez, gastuak asko murriztuko liriteke euren proposamenarekin. Eizmendiren arabera, ordea, hori ez da horrela. «Udaletxeek eta mankomunitateek gastu handia dutela argudiatzen dute, baina, arazoa da Nafarroako Gobernuak ez duela baliabide nahikoa jartzen zerbitzuak emateko, eta orduan, udalek hartu behar dutela gastua euren gain».

Leitza alkateak argi du Nafarroako Gobernuak proposatzen duen banaketarekin, mankomunitateak bere esku, hau da, UPNren esku jartzea lortzen duela. «Mankomunitate gutxiago izanda indarren eta botereen banaketa beste era batekoa da: esaterako, Basaburuak bere ongizate mankomunitatean pisu jakin bat du, baina Iruñerriko mankomu-

nitatearekin lotuz gero nabarmen galtzen du pisua, eta bere botok indar gutxiago izango luke».

**Azterketarekin hasi**

Ez da oraindik erabakirik hartu, eta Nafarroako Gobernuak eginikoa proposamena baino ez da. Parlamentuaren oniritzia eta onarpena behar du aurrera atera ahal izateko. Horretarako, PSN alderdiaren babesa beharko du UPNk. Bi alderdiek osatzen zuten lehen gobernu, baina hautsitzat eman zuten akordioa.

Eizmendik ez du argi ikusten PSNk zein jarrera hartuko duen: «PSN legea aldatzearen aldekoa zen, baina ahulegia iruditzen zaiola UPNren proposamena adierazi du, beraz, ez dakigu zer egingo duen». Dena den, argi du UPNren proposamena onartu ala ez, beraiek aurrera egingo dutela: «Nafarroako Gobernu ez bada hasten, gu hasiko gara eskualdez eskualde bakoitzaren egoera aztertzen eta bertako herritarrekin hitz egiten».

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**





GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	19°
HOTZENA	13°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Farmaziak

### GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.  
■ **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren 52. Telefonoa: 112.

### BIHAR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.  
■ **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren 52. Telefonoa: 112.

### ETZI

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria Kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.  
■ **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren 52. Telefonoa: 112.

### ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalaretza, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.  
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak



### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● agurrak

**Mauka berria** GAURKO ESKAINTZA

**Hasi urtea  
Dolarea hotelean**

**DOLAREA HOTELA**

Salmeria Etorbidea, 51 - Tolosa  
20200 OPLUZOLA  
Tel: 943 65 56 95  
info@dolareahotela.com  
www.dolareahotela.com

**Precioa 160€**

[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu) **berria**

**Irrikan?**

**Gaur, Maukan, eskiatzeko 'forfalt'-ak %40 merkeago**

**Mauka berria**

**hitza** info

## Agenda

### DEIALDIAK

■ **Baliarrain.** Kultur Elejiraren barruan, gaur, 16:30ean, errota zaharren funtzionamenduari buruzko bideo emanaldia.  
■ **Berastegi.** Kultur Astearen barruan, gaur, 21:00etan, *Hegoaldera bizikletazikus* entzunezkoa, Joanes Gibelalderen eskutik, eskolako ganbaran.  
■ **Orexe.** Kultur Hamabostaldiaren barruan, gaur, *Kabaret* antzezlan, 22:00etan.

### MUSIKA

■ **Tolosa.** Abesbatza Lehiaketaren barruan gaur, 16:00etan, Musika Profanoaren saileko emanaldiak, Leidorren; eta 19:30ean, Folklore eta Polifonia saila, Leidorren.

### ZINEMA

■ **Tolosa.** *Declaración de guerra* filma, gaur, 22:30ean.

Egin HITZako harpidedun azaroaren 30a baino lehen


eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

**OPARI**



eta...

... HITZAren harpidedunen artean bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa zozkatuko dugu



**HYDRA**  
TOLOSA

**hitza** info

harremanetarako:  
902 82 02 01  
[harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)